

Gure enpresaren kanal nagusia aplikazioa denez hau izango da gure bezeroekin harremanetan jartzeko bidea. Aplikazio honen bidez gure bezeroen eguneroko beharren berri izango dugu eskaerak jaso eta hauei erantzunak emateko. Gure bezeroek, platerak aplikazio bidez eskatuko dituzte eta erreztasunez osagai kopurua zehaztuko dute beraien gustokoa izango den platera gure **kolaboratzaile sareak** eskaerari erantzuna eman diezaion. Ondoren garraiolari batek plateren entregak egingo ditu bezeroa dagoen tokira gerturatuz.

Gure aplikazioa sare sozialetan publizitatuko dugu. Gure bezero zuzenak duten adinarengatik eta dituzten ohiturengatik sare sozialen erabiltzaile aktiboak direla uste dugunez zuzenean iritxiko zaien iragarkiak publikatuko ditugu.

Sare sozialez gain gure bezero gehinak enpresetan lanean dauden jendea izango denez enpresetako hormetan kartelak jartzeko baimena eskatuko dugu.

Adineko jendeari gure zerbitzuaren berri emateko herriz herri buzoneatuko dugu. Bide hau irisgarriagoa iruditzen bait zaigu dituzten bizi ohiturak errespetatuz.